

elkarte 64

2026ko UZTAILA

INFORMAZIO ALDIZKARIA



PUBLIPOSTA
PUBLICORREO



**ESKUBIDEAK
ALDARRIKATZEKO
AHOTS GAZTEAK**

ARABA

EGINAREN EGINEZ

Arabako desgaitasun fisikoa duten pertsonen elkarte

GIPUZKOA

AGADELPRISE

Gipuzkoako linfedema primario edo sekundarioak eta lipedemak erasandakoen elkarte

AGAER

Gaixotasun erreumatikoek erasandakoen Gipuzkoako elkarte

AGE

Gipuzkoako epilepsiaren elkarte

AGI

Gipuzkoako ikusmen urria duten elkarte

ANAIIDIA

Gutxitasuna duten pertsonen kristau senidetasuna

ASPARGI

Gipuzkoako parkinson elkarte

BEGIRIS

Gipuzkoako itsu edo ikusmen urritasuna duten pertsonen inklusioa sustatzeko elkarte

BIZI-BIDE

Asociación Guipuzcoana de fibromialgia, síndrome de fatiga crónica, encefalitis miálgica múltiple y electrohipersensibilidad

KOXKA

Desgaitasunen bat duten Hernaniko elkarte

LEZDI

Lezoko gutxituen elkarte

BIZKAIA

ACCU

Bizkaiko Crohnen eritasuna eta ultzeradun kolitisa duten gaixoen elkarte

ADELA

Alboko esklerosi amiotrofi-koaren Bizkaiko elkarte

ADELES

Bizkaiko Lupus eritematoso sistemikoa duten gaixoen elkarte

ADEMBI

Bizkaiko esklerosi anizkoitzaren elkarte

APDISA

Desgaitasuna duten pertsonen Santurtziko elkarte

AHEVA

Bizkaiko hemofiliaren elkarte

ALCER

Bizkaiko giltzurruneko gaixotasunen aurkako elkarte

ARGIA

Bizkaiko ostomizatuen elkarte

ARNASA BIZKAIA

Euskal Herriko Fibrosis Kistikokoaren Elkarte

ASEBIER

Arantza bifidoa eta hidrozealia gaixotasun arraroen Euskadiko elkarte

ASHUBI

Asociación Huntington Bizkaia

ASPANOVAS

Bizkaiko haur minbizidunen gurasoen elkarte

BENE

Bizkaiko eritasun neuromuskularraren elkarte

BIDARI

Gutxitasun fisikoa duten pertsonen Ermuko elkarte

BIZKEL

Bizkaiko bizkarmuinaren kaltetuak

BIZADELPRISE

Lifedema primario, sekundarioak eta Lipedema Eragindakoen Elkarte

CODISFIBA

Barakaldoko gutxitasun fisikoa duten pertsonen elkarte

EFELA

Gutxitasun fisikoa duten pertsonen Arratiako elkarte

EMAN ESKUA

Fibromialgia eta neke kronikokoaren Bizkaiko elkarte

FRATER

Elbarrituen eta gaixoen kristau elkarte

LEVAR

Artritis reumatoidea duten pertsonen Bizkaiko elkarte

RETINA BIZKAIA BEGISARE

Asociación de distrofias hereditarias de la Retina de Bizkaia

Elkarte hauekin harremanetan jarri nahi baduzu, jo ezazu zure lurraldeko koordinatzaileara.



ARABA

Simón Bolívar plaza, 9 behea
Tel.: 945 22 55 16
Fax: 945 06 18 09
01003 VITORIA-GASTEIZ
info@eginez.org
www.eginez.org



BIZKAIA

Blas Otero, 63 behea
Tel.: 94 405 36 66
Fax: 94 405 36 69
48014 BILBAO
fekoor@fekoor.com
www.fekoor.com



GIPUZKOA

Ondarreta pasealekua, 5 behea
Tel.: 943 31 67 70
Fax: 943 31 63 79
20018 DONOSTIA
elkartu@elkartu.org
www.elkartu.org

Argitaratzailea:



L.G.: Vi-123/01

Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erroka Demografikoaren Sailaren dirulaguntzarekin egindako argitalpena.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERROKA DEMOGRAFIA-AREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Inprimitzeko erabilako materiala:



Papel parcialmente
reciclado procedente
de fuentes
responsables

Aurkibidea

4

DESGAITASUNA DUTEN GAZTEENGANA HURBILTZEKO PROIEKTUA



5

Aurrerapausoa produktu ortoprotesikoak eskuratzeko

6

Zer aurreikusten du atzeritarrei buruzko erregelamendu berriak desgaitasuna duten pertsonentzat?

7

Inor atzean utziko ez duen etxebizitza politika baten alde

Erreparazioa eta desgaitasuna: emakumeen eskubideak bermatzeko gida

ARABA

8

Aldeko epaia enplegu publikoan

Bizimodu independentearen europako eguna

9

Dantzaren nazioarteko eguna

Laudioko herritarren parte-hartzea

10

Memoria historikoa: poliomieltisa eta polio osteko sindromea

Parte-hartze instituzionala eta komunitarioa

Aitanaren kontzertua Bilbon

BIZKAIA

11

Bizkaiko desgaitasun-dekretu berriak atzerapausoa dira

Renfeko laguntza-zerbitzua

12

Taxi egokituen falta

Desgaitasunaren Konbentzioaren 20. urteurren

13

Parte-hartze aktiboa Bizkaibusean

Basurtuko Ospitaleko hobekuntzak

Sestaoko igogailuak

Bilboko VI. Berdintasun Planari egindako ekarpenak

GIPUZKOA

14

Bizimodu Independentearen Gipuzkoako Bulegoa

Erabakiz proiektua: webgunea eta ikus-entzunezko materiala

15

Parte-hartze prozesua: desgaitasuna duten pertsonen aisialdirako eskubidea

Renfe aldiriak Gipuzkoa

16

Uber ibilgailuak eta irisgarritasuna

Elkarturen WhatsApp kanala

Desgaitasuna duten gazteengana hurbiltzeko proiektua



Elkarteanen konturatu gara desgaitasun fisikoa duten gazteek gaur egun harreman mugatua dutela elkarte-mugimenduarekin eta haien eskubideen defentsarekin. Errealitate hori hainbat faktorekin lotuta egon daiteke: informazio falta, gazte batzuek elkarte-egitura tradizionaletik sentitzen duten urruntasuna edo aktibismo modu malguagoak, digitalagoak eta deszentralizatuagoak agertzea.

Harremanak izateko, parte hartzeko eta eskubideak aldarrikatzeko moduen aldaketa horrek zuzenean interpelatzen gaitu erakunde gisa, eta begirada berri batetik gazteengana hurbiltzeko beharra planteatzen digu. Horretarako, funtsezkoa da ulertzea zerk motibatzen dituen gazteak, zer oztopo aurkitzen dituzten parte hartzeko, zer espero duten elkarte-mugimendutik eta zer formatuk bultzatzea dezakeen partaidetza hurbilagoa, eskuragarriagoa eta esanguratsuagoa.

Asmo horrekin, Elkarteanen proiektu bat jarri dugu abian, eta honako fase hauen bidez gauzatuko da:

- Testuingurua aztertzea, gizarte-partaidetzaren, aktibismoaren eta elkarte-mugimenduen arloan desgaitasun fisikoa duten gazteen egungo errealitatea ezagutzeko.

- Gazteei zuzenean entzutea sareko galdetegi baten bidez, parte-hartze sozialaren eta eskubideen defentsaren inguruan dituzten iritziak, esperientziak, interesak eta itxaropenak jasotzeko.
- Parte hartzeko gunea, alderatzeko eta sakontzeko. Bertan, partekatu egingo ditugu lortutako lehen emaitzak, emaitzei buruz solasean arituko gara eta emaitzen interpretazioa aberastuko dugu gazteen ahotsekin.
- Azken dokumentu estrategikoa, lortutako ebidentziak, baterako interpretazioa eta gure etorkizuneko lan-ildoak bideratzeko gomendio praktikoa batzuk jasoko ditue-na.

Prozesu hori aurrera eramateko, protagonisten zuzeneko parte-hartzea behar dugu, eta, beraz, desgaitasuna duten gazte guztiak sareko galdetegi batetara animatzen zaituztegu. Zuen parte-hartzeak emango dio zentzua eta norabidea prozesu osoari. Ateratako ondorioetatik abiatuta, Elkarteanen lan-ildoek helburu hauek izango dituzte: elkarte-mugimendua indartzea, belaunaldi berriengana hurbiltzea eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideak eta parte-hartze soziala defendatzea. Hori guztia, ikuspegi gaurkotuago, irisgarriago eta inklusiboago batetik.

Aurrerapausoa produktu ortoprotesikoak eskuratzeko



Joan den martxoaren 12an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 180/2026 Errege Dekretua, martxoaren 11koa, Espainian egon arren Espainiako lurraldean legezko bizilekua ez duten atzerritarrei funts publikoen kontura osasuna babesteko eta osasun-arreta jasotzeko eskubidea aitortzea arautzen duena.

Arauren ardatza Espainian legezko bizilekurik ez duten atzerritarrek osasun-laguntza jasotzea bada ere, desgaitasuna duten pertsonentzat ere aldaketa garrantzitsu bat dakar: prestazio ortoprotesikoaren salbuespenak prestazio farmazeutikoen salbuespenekin parekatzea. Horrek esan nahi du sendagaietan ekarpenik egin behar ez dutenek ez dutela ekarpenik egin beharko produktu ortoprotesikoetan. Komeni da argitzea salbuespen hori ez dela automatikoki aitortzen desgaitasuna izateagatik, baizik eta pertsona bakoitzaren egoera partikularren arabera dela.

Arauk errenta-mailaren arabera ekarpen-ehunekoak ere zehazten ditu, farma-

zia-prestazioaren eskema bera kontuan hartuta: % 60 100.000 euro edo gehiagoko errenta dutenentzako; % 50 18.000 eta 100.000 euro bitarteko errenta duten asegurudun aktiboentzako; % 40 gainerako asegurudun aktiboentzako; eta % 10 Gizarte Segurantzako pentsiodunentzako eta ekarpen murriztuko produktuetarako.

Elkarteanen positibotzat jotzen dugu aldaketa hori, eskubideak bermatzeko bidean aurrerapausoa delako eta desgaitasuna duten pertsona askorentzat funtsezkoak diren produktuak eskuratzeko oztopo ekonomikoak ezabatzen laguntzen duelako. Hori dela eta, bilera bat eskatu diogu Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, Euskadin aldaketa hori nola gauzatuko den zuzenean jakiteko.

Gai horren jarraipena egiten jarraituko dugu, nola garatuko den jakiteko, aplikazioan egon daitezkeen zalantzak argitzeko eta araudia- ren hobekuntza hori pertsona guztientzat modu argian eta irisgarrian gauzatzen laguntzeko.

Zer aurreikusten du atzeritarrei buruzko erregelamendu berriak desgaitasuna duten pertsonentzat?

Apirilaren 14ko 316/2026 Errege Dekretuaren berri izan dugu, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 19ko 1155/2024 Errege Dekretua, atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onartzen duena.

Erreforma horrek atzeritartasunaren erregelamendu-esparrua eguneratzen du, zaurgarritasun-egoerak murrizteko, atzeritarren gizarteratzea errazteko eta haien eskubideak benetan baliatzen dituztela bermatzeko. Horretarako, berrikuntzen artean daude ezohiko errotzea, prozedura-baldintza jakin batzuk malgutzea eta eskabideak aurkezteko bide berriak gaitzea.

CERMIren 2026ko apirilaren 15eko txostenaren arabera, bereziki desgaitasuna duten pertsonen dagokienez, Errege Dekretuak honako aurreikuspen hauek jasotzen ditu:

- Ezohiko errotzea eta familia-zaintza. Gai-kuntza-kasu gisa onartuko da desgaitasuna duten seme-alaba adinez nagusiekin bizi direnen egoera, baldin eta laguntza behar badute edo osasun-arrazoiengatik beren premiak bete ezin badituzte (horrek agerian uzten du zaintza- eta laguntza-erantzukizunak dituzten atzerriko familia askoren errealitatea).
- Luzapena, enplegua aktiboki bilatzeko beharrik gabe. 132. artikulua aldaketak aukera ematen du baimen jakin batzuk luzatzeko, enplegu-bilaketa egiaztatu beharrik gabe, inguruabar jakin batzuk gertatzen direnean: gaixotasuna, desgaitasuna...

(horrela, administrazio-jarraitutasunerako ez dira bete beharko egoera horietan dauden pertsonentzat ezinezkoak edo neurritz kanpokoak diren betekizunak).

- Lau urtera arteko luzapenak. Aldaketa arruntik eskatu ezin denean, baimena lau urtera arte luzatzeko aukera aurreikusten da, baldin eta eskatzailearen, haren ezkontidearen edo lehen mailako ondorengoen (osasun-arrazoiengatik beren premiei erantzun ezin dieten adinez nagusiak barne) gaixotasun larriko edo desgaitasuneko egoerak gertatzen badira.
- Familia-unitatea babestea. Lehenengo xedapen iragankorrak malgutu egiten ditu bizileku-baldintzak desgaitasuna duten eta laguntza behar duten seme-alaba adindunak dituztenentzako (bai eta tutoreentzako ere), familia- babesa indartzen du eta betetzen zailak diren ohiko eskakizunek eragiten dituzten bazterketak saihesten ditu.

Hala ere, txostenak berak dio arauak gabezia nabarmenak dituela eskubideen ikuspegitik: ez du bermatzen prozeduren irisgarritasun unibertsala, ez du berariazko laguntzarik arautzen izapidetzean, hala nola irakurketa erraza, irisgarritasun kognitiboa edo zeinu-hizkuntzako interpretazioa, eta desgaitasuna ez da zeharkako printzipio gisa txertatzen, kasu zehatzetan baizik.

Azken batean, informazio honen bidez, araudi horrek desgaitasuna duten pertsonentzat eta haien familientzat dakartzan aurrerapean partekatu nahi ditugu, bai eta haien eskubideak erabat gauzatu direla bermatzeko oraindik landu ez diren gabeziak ere.

Inor atzean utziko ez duen etxebizitza politika baten alde

Euskadiko Hirigintza eta Etxebizitza Foroan parte hartu dugu. Eusko Jaurlaritzak sustatutako foro hori Etxebizitzaren aldeko 2022-2036ko Itun Sozialaren esparruan kokatzen da, eta herritar guztiek etxebizitza duin eta eskuragarria izateko duten eskubidea gauzatzea du helburu. Gure parte-hartzeak desgaitasuna duten pertsonen beharrak haien bizitzetan eragina duten erabakiak hartzen diren gunee-tara eramateko konpromisoari erantzuten dio.

Foroak etxebizitzaren birgaitzeari, berroneratzeari eta mantentzeari buruzko Lantalde bat sortu zuen. Guk ere lantalde horretan parte hartu dugu, eta haren ondorioak 2026ko apirilean argitaratutako Gomendioen Txostenean jaso dira.

Txostenak baliabide gutxiago dituzten eta kalteberatasun egoera bereziak dituzten jabeek lantuntza eskaintzeko beharra aitortzen du; horien artean desgaitasuna duten pertsonak daude. Zehazki, garrantzi bereziko bi gomendio jasotzen ditu:

- Irigarritasunera bideratutako laguntzen pisua handitzea, energia-eraginkortasunera bideratutako aldean; izan ere, finantzaketaren zatirik handiena deskarbonizaziora bideratzen da, eta ezinbestekoak diren irigarritasun obrak bigarren mailan geratzen dira.
- Eraikinen Ikuskapen Teknikoen (ITE) araudia hobetzea, irigarritasun gabeziek izaera loteslea izan dezaten, eta ez soilik informazio izaera.

Azken batean, positibotzat jotzen dugu txostenak aipamen horiek jasotzea, eta lanean jarraituko dugu desgaitasuna duten pertsonen beharrak Euskadiko Etxebizitza politiketan aintzat har daitezen. Irigarritasuna ez da aukera bat, eskubide bat baizik.

Erreparazioa eta desgaitasuna: emakumeen eskubideak bermatzeko gida

Posizionamendu Gida bat prestatu dugu, indarkeria matxisten erreparazio-printzipioan desgaitasunaren ikuspegia txertatzeko. Indarkeria matxistaren eta desgaitasunaren esparruan ari diren erakunde, administrazio eta profesionaleri zuzenduta dago.

Gidak baztertu ezin den errealitate bat du abiapuntu: desgaitasuna duten emakumeek indarkeria mota larriagotuak jasaten dituzte, generoaren eta desgaitasunaren arteko gurutzaketaren ondorioz. Horrez gain, babeserako, justiziarako eta erreparaziorako sarbidea zailtzen duten egiturazko oztopoak, jarrerazkoak eta instituzionalak dituzte. Erreparazioa ez da unean uneko ekintza ezta konpentsazio isolatua; emakumea erdigunean jartzen duen prozesu integrala da, eskubideak, duintasuna eta autonomia berrezartzeko.

Lau atal ditu. Lehenengoak erreparaziorako eskubideari berari buruzko esparru teorikoa eskaintzen du. Bigarrenak desgaitasuna duten emakumeen erreparazioan sakontzen du, indarkeria espezifikoak eta eskubideak eskuratzeko oztopoak aztertuz. Hirugarrenak, Gure Aho-tsak izenekoak, 108 emakumeren ekarpenak jasotzen ditu. Haien proposamenak laugarren atalean garatzen dira, sistema bidezkoagoak, irigarriagoak eta erreparatzaileagoak lortzeko.

Elkarteanetik lanean jarraituko dugu ikuspegi asistentziala gainditzeko eta desgaitasuna duten emakumeak eskubide osoko subjektu gisa kokatzeko, erabakitzeak duten gaitasuna aitor-tuz eta beren bizi-proiektuak eraiki ahal izateko behar dituzten laguntzak bermatuz. Informazio gehiago eskuratzeko, gida Elkarteanen webgunean kontsulta dezakezu: <https://elkartean.org/>

ALDEKO EPAIA ENPLEGU PUBLIKOAN

Aurreko zenbaki batean jakinarazi genizuen bezala, **eginaren eginez**ek 2025eko irailean baiespen-epai bat lortu zuen Gasteizko Udalaren aurrean, 2022ko EPEko 669 lanpostu lehiaketa bidez egonkortzeko salbuespeneko deialdiari dagokionez, egiaztatu baitzen deialdi horretan ez zela ezarri desgaitasuna duten pertsonentzako plaza nahitaezko erreserba.

Administrazioarekiko Auzien Gasteizko 1. Epaitegiak arrazoia eman zion **eginaren eginezi**, erreserba-kupoaren omisioa legez kanpokoizat jo baitzuen, eta salbuespeneko lehiaketa-sistema bidezko deialdi horren deuseztasuna deklaratu zuen, ez zuelako aurreikusten desgaitasuna duten pertsonen aldeko legeko erreserba. Epai garrantzitsua da, berretsi egiten baitu egonkortze-prozesuak ezin direla salbuespen izan desgaitasuna duten pertsonentzako kupo bat erreserbatzeko betebeharrerako. Udalak ez zuen epai horren aurkako errekurtsorik aurkeztu, eta, beraz, epai hori irmo bihurtu zen. Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko abenduaren 5ean hartutako Erabakian (2025eko abenduaren 26ko ALHAO), Gasteizko Udalak epai bi fasetan betearaztea erabaki zuen, eta aitortu zuen gutxienez 47 plaza erreserbatu behar zirela (deialdiko 669 plazetatik % 7). Horretarako, alde batetik, zuzenean gorde zituen hautaketa-prozesuan oraindik esleitu gabe zeuden 35 plazetatik 34 desgaitasun fisikoa zuten pertsonentzat, eta erabaki zuen aurkaratutako prozesuaren oinarri berberak dituen deialdi bat aterako zuela; eta, bestetik, erabaki zuen LPZ aldatuko dela 2026an desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako 13 plaza espezifiko EPE bat egiteko. Hala ere,

erabaki hori ez da irmoa, hautaketa-prozesuan interesatuta dagoen hirugarren pertsona batek administrazioarekiko auzibidean errekurtsioa jarri baitu. Errekurtsio hori oraindik izapidetzen ari da.

BIZIMODU INDEPENDENTEAREN EUROPAKO EGUNA



Maiatzaren 5ean elkarretaratzea egin genuen Eusko Jaurlaritzaren egoitzaren aurrean, Bizimodu Independentearen Europako Eguna zela-eta. Egun horretan, dibertsitate funtzionala dugun pertsonok gure bizitzari buruz erabakitzeko, komunitatean erabat parte hartzeko eta baldintza berdinetan erabakitzeko dugun eskubidea aldarrikatu genuen.

Bizimodu independenteak esan nahi du non, nola eta norekin bizi aukeratu ahal izatea. Era berean, aukera-berdintasunean hezkuntza inklusiboa, enplegua, aisialdia, kultura eta parte-hartze soziala eskuratu ahal izatea ere barne hartzen du.

Elkartean lanean jarraitzen dugu gizarte irisgarriago, inklusiboago eta giza eskubideekin konprometituago baterantz aurrera egiteko. La-

guntza pertsonala, irisgarritasun unibertsala eta oztopoak kentzea funtsezko tresnak dira oraindik ere erabateko herritartasuna bermatzeko.

Dakizuenez, Geuk Erabakiz elkartearen bidez, Euskadiko BIZIMODU INDEPENDENTEAREN LEHEN BULEGOA, **BIB ARABA**, jarri dugu abian. Horrela, elkarte-mugimenduaren zeregina, eta esperientzia eta konpromisoaren bidez bizimodu independenterako eskubidea gauzatzeko aldaketa sozial eta politikoak bultzatzen jarraitzen duten pertsona guztien zereginak duen balioa azpimarratu nahi izan dugu.

DANTZAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Apirilaren 29an Dantzaren Nazioarteko Eguna da, pertsonak batzeko, emozioak adierazteko eta sormena sustatzeko gai den adierazpen artistiko unibertsal horri balioa emateko eguna, eta Gasteizen, maiatzaren 10ean, igandea, ospatu dugu egun hori, Gasteizko Plaza Berrian.



eginaren eginezek José Uruñuela Dantza Kontserbatorioak hiriko dantza eskolekin batera antolatutako ekitaldian parte hartu du, eta hainbat emakumek egindako koreografia bat aurkeztu du, dantza inklusiorako eta parte hartzeko tresna ere badela erakusteko.

Gure Elkartetik, kultura pertsona guztientzat irisgarria izatearen garrantzia nabarmendu nahi dugu. Egun hori ospatzea kulturak gizartea eraldatzeko eta bizikidetzarako elementu gisa duen balioa aitortzea ere bada.



LAUDIOKO HERRITARREN PARTE-HARTZEA

eginaren eginezek parte hartu du berriki Laudioko Udalak bultzatutako herritarren partaidetzarako hainbat gunetan, **Landaluce 27** proiektuarekin lotuta, eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen ikuspegia eskaini eta haien beharrak ikusarazi ditu.

Saio irekietan eta bizilagunen topaketetan, erai-kinaren erabilera sozial, kultural eta komunitarioekin lotutako proposamenak jaso dira, bai eta ekipamenduaren kudeaketari eta antolaketari buruzko ideiak ere. Herritarren ekarpenen artean, espazio multifuntzionala, malgua eta herritarren benetako beharretara egokitua sortzeko proposamenak nabarmentzen dira. eginaren eginezek, irisgarritasun unibertsaleko, mugikortasun seguruko eta pertsona guztientzako diseinuko irizpideak proposatu ditu.

Elkartetik, positibotzat jo ditugu elkarrizketarako eta lankidetzarako gune horiek, aukera ematen baitute herritar antolatuen esperientzia txertatzeko eguneroko bizitzari zuzenean eragiten dioten erabakiak hartzean.

MEMORIA HISTORIKOA: POLIOMIELITISA ETA POLIO OSTEKO SINDROMEAK

Elkartearen Polioaren eta Polio osteko Sindromearen Batzordeak duela gutxi idazki batzuk bidali dizkie lehendakariari eta hainbat sailei, hurrenez hurren, polioak Euskadin kalteetako pertsonen aintzatespenean eta memoria historikoan aurrerapausoak emateko.

Komunikazio horien bidez, gaixotasun horrek milaka pertsona eta familiarengan izan zuen eragin soziala, sanitarioa eta humanoa aitortzearen garrantzia nabarmendu da. Era berean, **Memoria Historikoaren** arloan onartutako legeria betetzea eskatu da, hots, polioa eta polio osteko sindromea duten pertsonak frankismoaren biktimak gisa aitortzea.

eginaren eginezek beharrezkotzat jotzen du sensibilizazio, dokumentazio eta aintzatespen instituzionaleko ekimenak bultzatzea, urte askoan isilik egon zen errealitatea ikusarazteko. Gainera, **Gogora**, Memoria, Bizikidetzak eta Giza Eskubideen Institutuarekin bilerak egin ditu.

Memoria historiko hori babesteak esan nahi du, halaber, hamarkadetan haien eskubideak eta duintasuna defendatu dituztenen borroka, erresilientzia eta aldarrikapenak aintzatestea.

PARTE-HARTZE INSTITUZIONALAK ETA KOMUNITARIOAK

Elkarteak aktiboki parte hartzen jarraitzen du hainbat gune instituzional eta komunitariorik, dibertsitate funtzionala duten pertsonen eskubideak defendatzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko.

Azken hilabeteetan, **Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluan** parte hartu dugu, eta gizarte-arretarekin, autonomia pertsonalarekin eta gizarteratzearekin lotutako proposamenak helarazi dizkiogu. Era berean, Elkartek Gasteizko **Mugikortasun Planari** lotutako hainbat ekimenetan parte hartu du, eta azpimarratu du aurrerapausoak eman behar direla garraio publiko irisgarria, ibilbide seguruak eta pertsona guztientzako pentsatutako hiri-inguruneak lortzeko. Era berean, **Irisgarritasuna Sustatzeko Euskarri Kontseiluaren Osoko Bilkuran** parte hartu dugu. **Elkarguneetan** (topaguneak eta herritarren lankidetzak) ere parte hartu dugu, esperientziak partekatze, beharrak detektatzeko eta baterako ekimenak sustatzeko. Foro horietan aktiboki parte hartzea funtsezkoa da dibertsitate funtzionala duten pertsonen ahotsa erabakitzeko-prozesuetan eta planifikazio sozialeko prozesuetan egoera bermatzeko.

CUARTO AZUL AITANA WORLD TOUR
ES · ARG · COL · MEX · USA · UK · FR · IT

15 SEP BILBAO
Bilbao Arena - BEC

5 SARREREN ZOZKETA · AITANA

Zerbitzu gure Instagrameko kontua
eta jakin ezazu nola parte hartu [@eginaren_eginaz](#)

MMP* SARRERA 1 + laguntzaile 2
MMP* SARRERA 1 + laguntzaile 1

*Aurkezle bati elkar mugikortasun inpartatu dute eta
guzpildak erabaki behar duen pertsonentzat.

eginaz
Gizarte Zerbitzuak
Gizarte Zerbitzuak
Gizarte Zerbitzuak

AITANAREN KON-TZERTUA BILBON

Jarraitu **@eginareneginez** eta jakin laster nola parte hartu mugikortasun urriko pertsonentzako **sarreraren zozketan**. Elkartetik parte hartze soziala, kulturarako sarbidea eta aisialdiaz modu partekatuan gozatzea bultzatuko duten jarduerak bultzatzen ditugu.

BIZKAIKO DESGAI-TASUN-DEKRETU BERRIAK ATZERA-PAUSOA DIRA



2026ko apirilaren 11tik, Bizkaian 28 eta 29 Foru Dekretuak daude indarrean, egoitzetarako sarbidea eta eguneko zentroetako prezioen kalkulua aldatzen dutenak. 2026ko apirilaren 11tik, Bizkaian 28 eta 29 Foru Dekretuak daude indarrean, egoitzetarako sarbidea eta eguneko zentroetako prezioen kalkulua aldatzen dutenak.

Prezioen araudi berria pertsona guztiei aplikatzen zaie, eta eguneko zentroetara eta egoitzetara sartzeko araudia, berriz, plaza eskatu dutenei baina oraindik plaza lortu duten edo ez adierazten duen gutun ofiziala jaso ez dutenei.

Aldaketa nagusiak:

- **Koordinaketa:** Eguneko zentroaren kostuak familiaren diru-sarrerak kontuan hartuko ditu orain, eta horrek tarifikak igo ditzake. Osasun-arazoengatik edo oporregatik zentrorara ez joateak ez ditu erabiltzaileak plaza osorik ordaintzetik salbuetsiko.
- **Adina:** Desgaitasun-zerbitzuetan 18 eta 64 urte bitarteko pertsonak egoten dira. Adin hori gaindituta, Aldundiak ofizioz eraman ahal izango du pertsona adinekoen zentroetara.

Fekoorren uste dugu neurri horiek atzerapauso onartezina direla, administrazio-kudeaketa lehenesten dutelako autonomia pertsonalaren eta NBERen eskubideen gainetik. Erabiltzaileen aukeratzeko askatasuna mugatzen duen eta familiak gehiegi kargatuko dituen ikuspegi "enpresarial" hori ikusita, bilera instituzionalak eskatuko ditugu, Arartekoarengana joko dugu eta kolektiboa defendatzeko bide judiziala hartu ala ez aztertuko dugu.

RENFEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA



Fekoorren Bilbo erdigunean tren-iragarritasunaren arloan dauden gabezia larriak salatu ditugu. Kritikatu nahi dugu Abandon eta Urduñan nasak altxatzeko lanetan izandako atzerapena. 2026aren hasierarako aurreikusita zegoen, eta uste dugu ez dela nahikoa proba pilotua sareko 69 geltokietatik bi geltokitan bakarrik aplikatzea.

Egoera horren aurrean, zuzeneko laguntza-zerbitzu bat proposatu diogu Eusko Jaurlaritzari, giza baliabideak, jasogailuak eta arrapalak erabilita. Neurria bazkideekin eta arrapala eraman-garriekin egindako benetako probetan oinarrituta dago, eta, hasiera batean, geltokien % 33tan ezarriko litzateke; gutxieneko irisgarritasun-irizpideak eta biztanle gehien dituzten geltokietan, hain zuzen ere. Erabateko autonomia bermatzen ez duen arren, sistema honek gaur egun bidaiatu ezin dutenei tren erabiltzeko aukera emango liekeela defendatzen dugu.

TAXI EGOKITUEN FALTA



Fekoorretik, garraio irisgarriaren arloan indarrean dagoen araudia betetzea eskatzen dugu, eta Bizkaian taxi eta gidaridun garraio-ibilgailu egokitu gutxi daudela salatu nahi dugu.

Lurraldean zehar autonomiaz mugitzea oztopoz betetako erronka da oraindik ere desgaitasuna duten pertsona askorentzat. Praktikan, ia ezinezkoa izan daiteke udalerri batzuetan edo ordutegi jakin batzuetan taxi egokitu bat hartzea.

Legeriaren arabera, taxi-lizentzien % 5ek gutxienez irisgarriak izan behar dute, eta 3.000 biztanletik gorako udalerrietan, egun osoan egon behar dute eskuragarri. Hala ere, Bizkaiko udalerri bakar batek ere ez ditu baldintza horiek betetzen. Bilbok ezarritakoa ia bete egiten du, baina beste herri batzuei, hala nola Barakaldo edo Getxori, asko falta zaie betetzeko.

Egoera are kezkarriagoa da gidaridun garraio-ibilgailuen kasuan. Araudiak unitate irisgarriak izatera behartzen dituen arren, enpresek (Cabify...) ez dute ibilgailu egokiturik Bizkaian, eta horrek mugikortasun urria

duten pertsonak zuzenean baztertzea dakar. Uber zerbitzu mota hori sartzen hasi berria da.

Errealitate hori isolamenduaren eta desberdinkeria ekonomikoaren faktore bat da. Gaueko garraiorik ez izateak segurtasunik eza sortzen du, eta erreserba alde aurretik egiteko aukerarik ez izateak eguneroko bizitza lasai antolatzea zailtzen du.

Bizkaian Taxiaren Batzordea abian jarri ondoren, parte hartzeko eskatu dugu, eredu inklusiboago baterantz aurrera egitea ahalbidetuko duten neurri zehatzak eskaintzeko.

DESGAITASUNAREN KONBENTZIOAREN 20. URTEURRENA



Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren 20. urteurrena dela-eta, Fekoorrek erakundeei exijitu nahi die bizimodu independentea benetako errealitate bihurtzeko. Nazioarteko itun horrek paradigma aldatu zuen, kolektiboa eskubide osoko subjektutzat hartzen baitu.

Sentsibilizazio-kanpaina bat abiarazi dugu sareetan, "Desirak" lelopean. Horren bidez, kolektiboko gazteek eskatzen dute Konbentzioko artikuluek berekin ekartzea enplegu duinak, etxebizitza irisgarria, aisialdi inklusiboa eta behar beste baliabide izatea osasun mentalaren arretarako.

PARTE-HARTZE AKTIBOA BIZKAIBUSEN



Bizkaibuseko irisgarritasun-lantaldeko kide izaten jarraitzen dugu. Azken hilabeteetan, geltokietan, autobusetan eta aplikazio mugikorrean egingo diren hobekuntzen berri eman digute.

Berrikuntza horiek ebaluatzeko eta probatzeko lanetan zuzenean parte hartzea adostu dugu, gure benetako beharrei erantzungo dietela ziurtatzeko.

BASURTUKO OSPITALEKO HOBEKUNTZAK



Gure bazkideek Basurtuko Ospitaleko obrak direla-eta, eta aparkaleku erreserbatuak ez dagoelako egindako keaxak ikusita, Fekoorrek premiazko neurriak eskatzen ditu.

Kudeaketa horiei esker, lantalde eksklusibo bat sortu dugu ospitalearekin elkarlanean aritzeko, eta dagoeneko ekarpenak egin ditugu irisgarritasun fisikoari, seinaleztapenari eta pazienteen arreta hobetzeko informazioari buruz.

SESTAOKO IGOGAILUAK



Joan den maiatzaren 8an, eta guk eskatuta, Sestaoko alkate Gorka Alvarezekin bildu ginen, berri on bat baieztatzeko: Udalak igo-gailuak jarriko ditu Arturo Campion kalean.

Hasierako asmoa eskailera mekanikoak jaretzea zen, baina aukera hori baztertu egin genuen bileretan eta Udalari bidalitako idazkietan. Azkenean, Udalak igo-gailuen aldeko apustua egin du irisgarritasun unibertsala bermatzeko; erabaki pozgarria da benetan.

BILBOKO VI. BERDINTASUN PLANARI EGINDAKO EKARPENAK

Bilbo 2026-2030 aldirako Berdintasun Plana diseinatzeko ari da, askotarikoagoa eta irisgarriagoa izateko; plan horretan Fekoorrek parte hartu du, eta funtsezko proposamenak egin ditu desgaitasuna duten emakumeek beren beharretara egokitutako erantzunak jaso ditzaten.

Horrela, Udalak desgaitasunaren aldagaia sartuko du azterlan eta estatistika guztietan, politika eraginkorrak diseinatzeko; kolektiboko emakume eta neskatuen arreta hobetuko du informazio eskuragarriaren eta indarkeria matxista prebenitzeko laguntza espezifiko bidez, eta udal-langileak prestatuko ditu zerbitzu inklusiboak eta hurbilekoak bermatzeko.



GIPUZKOA

BIZIMODU INDEPENDENTEAREN GIPUZKOAKO BULEGOA

Bizimodu independentearen ereduaren aldeko gure apustuari jarraipena emanez, Bizimodu Independentearen Bulegoaren eginkizunak gauzatzen hasiko gara, Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketak eta Gizarte Politiketako Departamentuarekin lortutako lankidetzak-akordioaren ondoren.

Bizimodu Independentearen Bulegoa laguntza-baliabide bat da, desgaitasun fisikoa duten pertsonen non, nola eta norekin bizi askatasunez aukeratzeko duten eskubidea gauzatu ahal izan dezaten, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioak aitortutakoarekin bat etorritz.

Funtzioak partikularrentzako eta, oro har, herriarrentzako izango dira. Hala, desgaitasun fisikoa duten pertsonen zuzendutako jarduketan artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Bizimodu independentearen programaren esparruan aurkeztu behar den bizimodu independentearen proiektua diseinatzen, garatzen eta, hala badagokio, doitzen laguntzea.
- Laguntza ematea, informazioaren eta orientazioaren bidez, bizimodu independentearen proiektu baten diseinuari eta garapenari dagozkion izapideak egiteko.
- Laguntza ematea, informazioaren eta orientazioaren bidez, laguntza pertsonaleko zerbitzuko profesionalak edo erakundeak bilatzeko.
- Laguntza pertsonaleko zerbitzua ematen duten pertsona edo erakundeekin gatazkak kudeatzen laguntzea.

Profesionalei eta, oro har, herritarrei zuzendutako funtzioei dagokienez, honako hauek nabarmentzen dira: bizimodu independentearen ereduak sustatzeko ekintzak, arlo horretan ezagutza sortzea eta transferitzea, laguntza-sisteman berrikuntza bultzatzea, edo desgaitasuna duten pertsonen bizimodu independenterako eskubidea sustatzeko eragin sozial eta politikoa.

Era berean, elkarlaneko gobernantza ereduaren esparruan, Bizimodu Independenteko Programaren jarraipen-, koordinazio- eta ebaluazio-ekin tzetan parte hartuko dugu, Zainketa eta Gizarte Politiken Departamentuarekin batera, betiere Programaren zuzeneko foru-kudeaketari eutsita.

Bizimodu independenterako eskubideari buruzko edozein zalantza baduzu edo informazioa, aholkularitza edo orientazioa jaso nahi baduzu, ohiko bitartekoen bidez jar zaitezke harremanetan **elkartu**rekin.

ERABAKIZ PROIEKTUA: WEBGUNE ETA IKUS-ENTZUNEZKO MATERIALA

2024tik garatzen ari garen erabakiz proiektuak webgune bat eta ikus-entzunezko hainbat material ditu dagoeneko, proiektuari buruzko xehetasun guztiak ezagutu ahal izateko.



Jakinarazi dizuegun bezala, proiektu pilotu bat da, eta, esperimentazioaren bidez, desgaitasun fisikoa duten pertsonen bizimodu independentea izateko duten eskubidea bultzatu nahi du. Horretarako, aldi jakin baterako, behar dituzten egoitza-baliabideak, baliabide pertsonalak eta baliabide teknologikoak jarriko ditu haien eskura. Beraz, behin betiko bizimodu independentearen eredu batera igarotzeko bitarteko urratsa da.

Erabakiz proiektuan parte har dezakezu baldintza hauek betetzen badituzu:

- Desgaitasun fisikoa eta mendekotasun-egoera aitortuta dituzu.
- 18-65 urte bitartean dituzu (gazteei ematen zaie lehentasuna).
- Oraindik familiarekin bizi zara eta haien laguntza jasotzen duzu, edo desgaitasuna bat-batean hartu duzu eta bizitza berri batera egokitu behar duzu.
- Oraindik ez zara modu independentean bizi izan, baina zalantzak edo beldurak izan arren modu independentean bizitzea pentsatzen ari zara.

Gure webgunearen bidez (www.elkartu.org) proiektuaren xehetasun gehiago kontsulta ditzaitezke (nori zuzenduta dagoen, helburuak, kon-tuan hartzen diren alderdiak, bermatzen diren laguntzak, etxebizitzaren ezaugarriak, etab.).

PARTE-HARTZE PROZESUA: DES- GAITASUNA DUTEN PERTSONEN AISIAL- DIRAKO ESKUBIDEA

Aurten parte hartzeko prozesu bat garatuko dugu, Gipuzkoan jaietako aisialdiko jardueren irisgarritasun- eta inklusio-baldintzak aztertzeko.

Beraz, datozen hilabeteetan gure lurraldeko hiri, herri eta auzoetako jaietan eta ekitaldietan antolatzen diren jai-jardueren buruzko informazioa lortu nahi dugu: aire zabaleko kontzertuak eta jaialdiak, txosnak, su artifizialak, desfileak edo kalejirak, haurrentzako jarduerak, ikuskizunak, azoka txikiak edo azokak, etab.

Horretarako, zure parte-hartzea eta lankidetzara behar ditugu. Horregatik, hilabete hauetan aipatutako jardueraren batera joaten zaren bakoitzean, prestatu dugun inprimakia eskuratze-ko eta betetzeko eskatzen dizugu, behar den informazioa eman eta ekarpenak egiteko.

Inprimakia gure webgunearen bidez eskura dezakezu, baita hura zabaltzeko erabiliko ditugun bitartekoen bidez ere (sare sozialak, whatsapp kanala, etab.).

Ematen dizkiguzuen informazioa eta iritziak bildu eta sistematizatu ondoren, urteko azken hiruhilekoan tailer bat antolatuko dugu, jaietako aisialdiko jardueren bete behar dituzten irisgarritasun- eta inklusio-baldintzetan sakontzeko.

Prozesuaren amaieran txosten bat egingo dugu erakunde publikoekin eta Gipuzkoan aisialdiko jarduerak antolatzeko eskumenak eta gaitasuna dituzten eragileekin partekatze-ko, pertsona guztiok aukera-berdintasunean parte hartu ahal izateko eta Gipuzkoan antolatzen diren jaietako jardueren gozatu ahal izateko behar diren neurriak har daitezkeen sustatze aldera.

RENFE ALDIRIAK GIPUZKOA

2025ean egindako parte-hartze prozesuaren ondoren, erakunde eskudunei bidali dizkiegu prozesu horretatik atera ziren hobekuntza-proposamenak, pertsona guztiek garraio publiko hori berdintasunez erabiliko dutela bermatzeko.

Zehazki, neurri hauek jasotzen dituen dekalogo batean laburbildu dira proposamenak:

- 1) Geltoki guztietan irisgarritasun-baldintzak benetan betetzen direla bermatzea.
- 2) Plangintza segurua, fidagarria eta benetako informazioan oinarritua bermatzea.
- 3) Nasa eta trenaren arteko jarraitutasuna ziurtatzea.
- 4) Mugikortasun urriko pertsonentzako laguntza-zerbitzuaren egungo eredia aztertzea, ibilbide osoan eta geltoki guztietan behar diren laguntza pertsonal eta teknikoak bermatuko dituen eredu bat ezartzeko.
- 5) Azpiegitura-akatsen aurrean alternatiba irisgarriak bermatzea.
- 6) Irisgarritasun-elementuen etengabeko eraginkortasuna bermatzea.
- 7) Mugikortasun urriko pertsonentzako guztiak benetako erabilera eta lehentasunezkoak bermatzea.
- 8) Erantzun profesionala, koordinatua eta irisgarritasuna ardatz duen erantzuna bermatzea, behar den prestakuntzaren bidez.
- 9) Pertsonen zuzeneko esperientzia modu estrukturalen txertatzea.
- 10) Mugikortasun urriko pertsonen segurtasuna eta arreta egokia bermatzea salbuespenezko egoeretan.



UBER IBILGAILUAK ETA IRISGARRITA- SUNA

Uber konpainia Gipuzkoan bidaiarien garraio-zerbitzua ematen hasi berri denez, erakunde eskudunetara jo dugu, garraio-alternatiba berri horren irisgarritasun-bermeekin kezkatuta gaudelako eta, ondorioz, desgaitasuna duten pertsonentzat izan ditzakeen ondorioekin, eskubide-atzerakada baita.

Hala, Uber enpresari eta haren plataformapean jarduten duten gidaridun garraio-ibilgailuen baimenen titularrei eskatu diegu legeak exijitzen duen ibilgailu egokituaren ehunekoa zorrotz betetzeko, bai eta legeaz exijitzen diren irisgarritasun-baldintza teknikoak betetzeko eta zerbitzua 24 orduz emateko ere. Horrela, bermatu egingo da desgaitasuna duten pertsonen garraibideak berdintasunez eta inolako diskriminaziorik gabe erabiltzeko duten eskubidea.

ELKARTUREN WHATSAPP KANALA



WhatsApp kanal bat sortu dugu, eta, horren bidez, egiten ditugun ekimenei eta jarduerari buruzko informazioa partekatuko dugu. **Eskaneatu QR kodea eta jarrai gaitzazu.**

